# mundua argazkietan

ALAN DIAZ / AP

## Elian etxera



■ Apirilaren 13an, Elian Gonzalez Kubako haur baltseroa aitaren esku uzteko agindu zien Estatu Batuetako Justiziak Miamiko senideei. Agindu horri jarrituta, indar berezi estatubatuarrak Elianen familiartekoen Habana Txikiko etxera sartu ziren eta haurra indarrez atera, irudian ikusten den moduan.

SILVIA IZQUIERDO / AP

## Fujimoriren iruzurra




■ Ekainaren 28an, Peruko hauteskundeetan, Alberto Fujimori irten zen garaile, oposizioa iruzurra salatuta erretiratu ostean. Irailean, Vladimiro Montesinos Fujimoriren aholkularia ustelkerian aritu zela frogatu eta presidenteak hauteskundeetarako deia egin zuen, horietara aurkeztuko ez zela iragarrita.

## Pinochet auzia




ALASTAIR GRANT / AP

■ Augusto Pinochet Txileko diktadore ohiaren aurkako estradizio eskaera ukatu zuen Londresek urtarrilean, osasun arazoak zirela eta. Martxoan Txilera itzuli zen eta bere aurkako prozesua hasi zuen hango Justiziak.

NASSER SHIYOUKI / AP

## Istiluak Palestinan



■ Istilu larriak piztu ziren Gaza eta Zisjordanian irail amaieran Israelgo soldaduen eta manifestari palestinarren artean, eta 200dik gora lagun hil ziren hurrengo asteetan. Israel eta Palestinaren arteko bake negoziazioak eten egin ziren borroken ondorioz.

BILBO BERRI
RENAULT
ZURE RENAULT KONTZESIONARIOA
IBAI ESKUINALDERAKO
Jon Arrospide, 20 DEUSTU-BILBO Tel.: 94 448 39 01
Iparragirre, 94 LEIOA Tel.: 94 480 46 02
Biskerre, z/g GETXO Tel.: 94 430 68 81

Paskin
• Trafiko Seinaleak
• Errotuloak
• Errepidetarako Ispiluak
Zorionak Egunkaria !
Abendaño Industrialdea, 6 • Tel-Faxa: 943 83 39 49


re + fa sinfonia
Tel.: 943 39 74 25
e-mail: tirritarra@euskalnet.net
tirri tarra